

## Zer egin gezurren aurrean

Haurrak, hiru eta sei urte dituztenean hasten dira gezurrak esaten. Gezurren bidez, nagusiek duten barne-munduarekin zerikusirik ez duen mundu bat dutela egiaztatzen dute haurrek eta mundu hori gezurrekin babestu egin nahi dute. Horrez gain, iruzurra posible dela ikusten dute eta bestalde, beste pertsonekin harremanak dituztenean, haiek dakiena edo ez dakitena kontuan hartu behar dela ohartzen dira. Adin horietako jokoetan, ustezko mundu bat sortzen dute, baina beraien asmoa guztiz zintzoa da, ez baitituzte gezurrak asmo txarrez esaten.

6 urtetik aurrera kontziente dira, egia aldatuz, onurak lortu ditzaketela. Orduan, errealitatea moldatzen dute gauzak lortzeko eta iruzur egiten saiatzen dira. Momentu horretan, gezurra arriskutsua izaten hasten da.

Hazten doazen heinean, errazago egiten zaie interesatzen zaizkien gezurrei heltzea (esaterako, beraien ekintzen ondorioz jaso dezaketen erantzukizunak saihesteko asmoz esandako gezurrak). Kasu horietan egia esatea garrantzitsua dela azaldu behar zaie eta egiak, zintzotasunak eta konfiantzak onurak dituela jakinarazi behar zaie.

Haurrek, gezurra esateko edo informazio ezkutatzeko izan ditzaketen arrazoiak, honako hauek izan daitezke:

- Hurrei gehiegi eskatzen bazaie eta beraiengandik gehiegi espero denean, haurrek gezurrak esan ahal dituzte familiaren itxaropenak ez zapuzteko.
- Beraien gurasoek gezurra esaten dutela sumatzen badute, ohikoa eta normala den zerbait dela pentsatuko dute eta jarrera hori imitatu egingo dute.
- Zigor edota errieta bat saihesteko ere gezurrak esaten dituzte. Hau izaten ohi da gezurrak esateko arrazoi pisutsuena.
- Arreta deitzeko. Istorioak gogo biziz kontatzen dituzte, istorioen bidez gezurrak kontatzen dituztenean, arreta jasotzen dutelako. Gezur horiekin beraien auto-estimua faltsuki berrindartzen dute.
- Antsietateari aurre egiteko. Arazo bat ezkutatu dezakete beste arazo batekin “mozorrotuz”.
- Beraien gezurrak sinesten dituzte, eta besteei gezur horiek egia direla sinestarazten ahalegintzen dira.

Gurasoek, beraien haurrak gezurra edozein egoeratan erraztasunez erabiltzen duela ikusten badute, garrantzitsua da ondokoa gogoan hartzea:

1. Gaitzespena adieraztea, baina kontrola galdu gabe. Ez iraindu eta ez etiketatu (ez esan “gezurti” bat dela).
2. Zentzudunak diren zigorrak erabili. Bestela, gezur gehiago esatera bultzatu dezakegulako, galtzeko ezer ez duelako.
3. Gure haserrea adierazi eta bere jarrerarekin ados ez zaudetela esan baina garbi utzi maite dugula.
4. Berarekin hitz egin, gezurra esango ez balu zer gertatuko litzatekeen azalduz.
5. Azaldu, batzuetan zaila dela gauza batzuk adieraztea, baina egokiagoa dela beti egia esatea, gezur atsegin bat esatea baino, egia esatea desatsegina izan arren.
6. Ze gezur mota adierazten duen eta gezurra esatera zerk bultzatzen duen zehaztu itzazue.
7. Egia esateak dituen onurak adierazi: modu horretan, beste egoera batzuetan berarenganako konfiantza osoa jarriko dela esanez.
8. Haurrarekiko komunikazioa bultzatu beti.

### **Laburpena**

Orokorrean, haur guztiek gezurrak esaten dituzte, batzuetan modu zintzo batez eta bestetan asmo txarrez. Kasu gehienetan, defendatzeko tresna bezala erabiltzen dituzte gezurrak. Modu horretan, gurasoei baliagarriak izan behar zaizkie, haurrek beraien kabuz konpondu ezin dituzten arazo posibleak antzemateko.